



"NERE HERRIKO NESKATXA MAITE"

(BENITO LERTXUNDI)

Nere herriko maite
ahozko lorez zaitut gaur
itsaso garden, lur gozoko
kresalaren usain, zeru kolore
nere taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen,
nere taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
..... sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta
erreka garbien kantu
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik geldira
leunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure loratuz doa
goizeko ihintzetan belardi zera
..... zilar dizdira,
goizeko ihintzetan belardi zera
..... zilar dizdira.